Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

**II ERAIKINA / EDIFICIO II**

Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

# PRACTICUM GIDA OROKORRA

HAUR HEZKUNTZA GRADUA

LEHEN HEZKUNTZA GRADUA

GRADU BIKOITZA

2024/2025 ikasturtea

# Aurkibidea

1. ZER DA PRACTICUMA? ..... 3
2. KRONOGRAMA (ikus egutegi zehatza HEFAko Practicum webgunean) ..... 4
3. ZEREGINAK ..... 4
3.1. Unibertsitateko tutorearen eginkizunak ..... 4
3.1.1. Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean ..... 4
3.1.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean ..... 5
3.1.3. Ikastetxearekiko harremanari dagokionean ..... 5
3.2. Ikastetxeko instruktorearen eginkizunak ..... 5
3.2.1. Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean ..... 5
3.2.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean ..... 6
3.2.3. Unibertsitatearekiko harremanari dagokionean ..... 6
3.3. Unibertsitateko Practicumeko koordinatzailea ..... 6
3.3.1. Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean ..... 6
3.3.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean ..... 7
4. ALDERDI BUROKRATIKOAK ..... 7
4.1. Jakin beharrekoak ..... 7
4.2. Practicumerako plazak ..... 8
4.3. Baliozkotzeak eta salbuesteak ..... 9
4.4. Kasu/ egoera bereziak ..... 10
5. PRESTAKUNTZA IBILBIDEA: PRACTICUM BAKOITZAREN IZAERA ETA EZAUGARRIAK ..... 12
5.1. Practicum I ..... 12
5.1.1. Helburuak ..... 12
5.1.2. Konpetentziak ..... 12
5.1.3. Gaitegia ..... 13
5.1.4. Ebaluazioa ..... 13
5.2. Practicum II ..... 18
5.2.1. Helburuak ..... 18
5.2.2. Konpetentziak ..... 18
5.2.3. Gaitegia ..... 19
5.2.4. Ebaluazioa ..... 20
5.3. Practicum III ..... 24
5.3.1. Helburuak ..... 24
5.3.2. Konpetentziak ..... 24
5.3.3. Gaitegia ..... 25

5.3.4. Ebaluazioa ..... 25
ERANSKINAK ..... 32
1. Eranskina: Practicum I fakultateko tutorearen ebaluazio orria ..... 32
2. Eranskina: Practicum I ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria ..... 34
3. Eranskina: Practicum II fakultateko tutorearen ebaluazio orria ..... 36
4. Eranskina: Practicum II ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria ..... 39
5. Eranskina: Practicum III fakultateko tutorearen ebaluazio orria ..... 41
6. Eranskina: Practicum III ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria ..... 43
7. Eranskina: FAQ ikasleentzat ..... 45
8. Eranskina: FAQ UPV/EHUko tutore eta koordinatzaileentzat ..... 48
9. Eranskina: FAQ ikastetxeko instruktorearentzat ..... 52

# 1. ZER DA PRACTICUMA?

Haur Hezkuntzako (HH), Lehen Hezkuntzako (LH) eta Gradu Bikoitzeko (GB) ikasleek ikastetxeetan egiten duten egonaldiari deitzen zaio Practicum. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateak (HEFA), hainbat erakunderekin elkarlanean, ikasleak lan munduarekin harremanetan jartzeko helburuz burutzen dituen jarduera multzoa da Practicuma. Egonaldia heziketa ibilbidean guztiz txertatuta dago eta irauten duen bitartean ikasleak hezkuntza zentroetan murgiltzen dira.

Practicumak irakaskuntzarako konpetentziak garatzeko aukera zabaltzen dio ikasleari; eskakizun profesionalak modu praktiko batean ezagutzeko eta hezitzaile izateak berekin dakartzan arazo pertsonal eta sozialak zuzenean bizitzeko aukera izango du. Esperientzia horretatik abiatuko da ikaslea, bakarka nahiz taldean egindako hausnarketaren bidez, ezagutza teorikoa eta praktikoa uztartzeko eta jarduera eremu guztietan konpetentzia profesionalak eskuratzeko.

Practicuma unibertsitateko irakasle-tutoreen, ikastetxeetako irakasle-instruktoreen eta ikasleen arteko lankidetza prozesua da.

HH, LH eta GB ikasketa planetan, hiru irakasgaitan banatuta dago Practicuma: 2., 3. eta 4. ikasturteetan, honakoa da bere kronograma[1].

Practicumaren ikas-prozesua mailaz maila diseinatuta dago, ikasleek gero eta parte-hartze, murgiltze eta esku-hartze handiagoa izan dezaten eta konpetentzien garapenean gora egin dezaten, egoera didaktikoen kudeaketan. (Practicum I, Practicum II eta Practicum III).

*1. Irudia. Practicum eskailera*




*Iturria: norberak egina.*

[1] Gradu bikoitzean hiru irakasgai badira ere, lau urtetan banatzen da Practicuma: 2. urtean Practicum I-HH, 3. urtean Practicum II-LH, 4. urtean Practicum II-HH, 5. urtean Practicum III

# 2. KRONOGRAMA (ikus egutegi zehatza HEFAko Practicum webgunean)

*1. Taula. Practicum kronograma orokorra*

| | MAILA | EGONALDIA | EPEALDIA | KREDITUAK |
|---|---|---|---|---|
| PRACTICUM I | 2. maila | 5 aste (30 ordu astean) | urria- azaroa | HH: 8 kr. LH: 9 kr. |
| PRACTICUM II | 3. maila | 7 aste (30 ordu astean) | otsaila-apirila | HH: 12 kr. LH: 11 kr. |
| PRACTICUM III | 4. maila | 12 aste (30 ordu astean) | azaroa-otsaila | HH: 18 kr. LH: 18 kr. |

*Iturria: norberak egina.*

# 3. ZEREGINAK

## 3.1. Unibertsitateko tutorearen eginkizunak

### 3.1.1. <u>Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean</u>

- Ikasle talde batez arduratuko da eta irakasgai honen irakaskuntza-lana bere gain hartuko du.
- Kanpoko praktika akademikoen prestakuntza proiektua egingo du. Proiektu honek, planteamendu teorikoei jarraipena ematen lagundu behar die ikasgeletan aplikatu daitezen, betiere ikastetxeko tutorearekin lankidetza estu batetik abiatuta.
- Praktikaldia hasi baino lehen harremanetan jarriko da ikastetxeko instruktorearekin eta ikaslearekin. Hura hasi ondoren, nola garatzen doan jarraituko du eta, beharrezkoa balitz, hobekuntza neurriak ezarriko ditu.
- Ikasleak praktikaldiko ordutegia bere osotasunean betetzen duela egiaztatu behar du.
- Practicuma kalifikatuko du. Horretarako ikasleak egindako lanak, zentroko tutore bakoitzak egindako ebaluazio eta praktiken jarraipenean egindako behaketa hartuko ditu kontuan.
- Practicum Dekanordetzak eta Titulazioko Koordinatzaileak deitutako bilera eta formazio saioetara joango da.

- Practicuma hobetzeko iradokizunak eta ekarpenak egin ditzake.

3.1.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean

- Praktikaldiaren programa helaraziko die ikasleei.
- Praktiketan ari diren ikasleekin prestakuntza mintegiak antolatuko ditu. Haien egutegia praktikaldia hasi baino lehen finkatuko du: lehenengoa, praktikak hasi baino lehenago; azkena, praktikak amaituta edo amaitzear direnean; eta tartean, beharrezkoak ikusten diren bakarkako edo taldeko bilerak.
- Ikasleei beharrezko dituzten orientabideak eskainiko dizkie praktikaldian zehar. Teoriaren eta praktikaren arteko lotura egiten lagunduko die eta praktiketako konpetentziak lortu dituztela ziurtatuko du.
- Tutoreak, instruktorearen laguntzaz, informazioa eta orientazioa eskainiko dizkie ikasleei. Ikasleari bere jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziko dizkio, hobetu ditzan. Sistematikoki jasoko ditu ikaslearen gaitasunen eskuratze maila.
- Praktikaldian jasotako informazio eta datuekiko konfidentzialtasunaren garrantziaz ohartarazi behar zaio ikasleari.

3.1.3. Ikastetxearekiko harremanari dagokionean

- Gutxienez hiru aldiz jarriko da harremanetan ikastetxeko instruktorearekin: lehendabizikoa, praktiken hasieran; bigarrena, praktiken zikloaren erdialdean; eta, azkenekoa, praktikak amaitu baino lehen.
- Practicum II eta IIIan, ikastetxera bisita bat gutxienez egingo da. Honako hauek izango dira bisita horren funtzioak eta helburuak:
    - Ikaslea praktikak egiten ari den ikastetxearen ingurunea ezagutzea eta prozesuari buruzko dagozkion zalantza guztiak argitzea.
    - Practicum gidak deskribatzen duen prestakuntzaren puntuak eta ebaluazio tresnak adostea ikastetxeko tutorearekin.
    - Praktikak egiten ari den ikasleari laguntzea.

## 3.2. Ikastetxeko instruktorearen eginkizunak

3.2.1. Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean

- Praktikaldia egiten ari den ikaslea ebaluatuko du Practicumaren amaieran. UPV/EHUren ebaluazio txostena beteko du eta bertan ikaslearen jardunak dituen indarguneak eta ahuleziak jakinaraziko ditu.

- Ebaluazio txosten hori UPV/EHUko tutoreari helaraziko dio.

### 3.2.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean

- Praktikaldira datozen ikasleei harrera egin beharko die lehen egunean eta bere taldearen ezaugarriei buruzko orientabideak emango dizkio.
- Ikastetxeko Ikasketa Proiektuari buruzko informazioa helaraziko dio.
- Ikasleek unibertsitateko tutoreek agindutako jarduerak izango dituzte (PII eta PIIIan nagusiki). Ikastetxeko instruktoreak jarduera hauek egiteko erraztasunak emango ditu eta behar denean zereginak gainbegiratuko ditu.
- Ikasle bakoitzari laguntza eta aholkuak ematea dagokio eta egin beharreko eginkizunetan autonomia eta erantzukizun-sena sustatzen saiatuko da.
- Ikastetxeko gainerako irakasleekin eta haurren familiekin koordinatzeko erraztasunak emango dizkio ikasleari eta ikastetxearen baliabideak jarriko ditu haren eskura.
- Aurretik —ikaslearen errendimendua espektatibak betetzen ari ez bada bereziki— jakinarazi egingo dio zertan hobetu dezakeen, ikasleak hobetzeko aukera izango du modu horretan.

### 3.2.3. Unibertsitatearekiko harremanari dagokionean

- Ikastetxeko instruktoreak bere ikastetxeko Practicumaren koordinatzailearen eta UPV/EHUko tutorearen arteko zubi lana egingo du.
- Gertaera garrantzitsuak (gatazkak, huts egiteak edo bestelakoak) unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko koordinatzaileari jakinarazi behar dizkio ahalik eta lasterren.
- Praktikaldiaren hobetzeko iradokizunik badu, unibertsitateko tutoreari ekarpena egin diezaioke.

## 3.3. Unibertsitateko Practicumeko koordinatzailea

### 3.3.1. Practicumaren kudeaketa lanari dagokionean

- Practicumeko Azpibatzordeko kidea da eta bilera eta aurkezpenetara bertaratuko da.
- Praktikaldiaren planifikazioaz, koordinazioaz eta ebaluazioaz arduratuko da.
- Practicum gida eguneratuko du, urteroko hobekuntzak jasotzeko.

- Ikastetxeetako tutoreen eta unibertsitateko instruktoreen arteko komunikazioa hobetzeko ekintzak egin ditzake eta gatazkatan bitartekari lanak egingo ditu.
- Tutore eta ikasleentzako behar diren informazio bilerak antolatuko ditu. Informazio hutsuneak edo formazio beharrak identifikatzen baditu, azpibatzordera eramango ditu.
- Practicum IIIko koordinatzailea, practicum tutore bakoitzari dagozkion ikasleak esleitzeaz arduratuko da.

3.3.2. Ikasleei zuzendutako irakaskuntza-lanari dagokionean

- Praktikaldiaren ondoren, ikasleek iritzi galdetegiak erantzun dituztela ziurtatuko du.
- Kasu bereziak erregistratuko ditu eta practicumeko azpibatzordera eraman. Zenbaitetan, ebazpenaren berri emango dio ikasleari.

# 4. ALDERDI BUROKRATIKOAK

## 4.1. Jakin beharrekoak

EHAA/2011n jasotzen den bezala, praktikak Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetza-hitzarmenaren arabera zuzentzen dira. Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudiak, 2019ko irailean, eta Eusko Jaurlaritzako Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-ikasketen Practicumari buruzko 33/2018 Dekretuak, martxoaren 6koak, arautzen dute Practicuma.

Praktikak HEFAko Practicum Dekanordetzak antolatzen eta koordinatzen ditu, beste ikastetxe batzuekin lankidetzan. Praktiketako Dekanordetzak berariazko informazio-dokumentuak eskainiko ditu Practicum irakasgaietan. Bertan, ikasle, tutore eta ikastetxeentzako orientazio orokorrak jasoko dira. Praktika arautuak direnez, dagokion Aseguruak estaliko ditu.

Practicuma Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Gradu Bikoitzari atxikitako enborreko irakasgaia denez, HEFAk berak antolatzen eta arautzen du. Practicum Dekanordetzaren zuzeneko arloa da, eta Akademia Antolakuntzako Batzordearen eta Practicum Batzordearen laguntzarekin jarduten du. Practicumarekin lotutako edozein gertaera konpontzeko, ikasleak Practicum Dekanordetzara eta Azpibatzordera jo beharko du. Praktika hauen bidez, ez dira inoiz ikastetxeetako, erakundeetako eta enpresetako irakasleen eginkizunak

beteko; hala, praktikak egiten dituztenek eginkizun desberdinak edota osagarriak izango dituzte.

Ezinbesteko informazioa:

- Ikasleak Eusko Jaurlaritzak UPV/EHUri esleitutako plazen artetik, HEFAk zehaztutako ikastetxeren batean egingo ditu praktikak.
- Praktikaldiak iraun bitartean, ikastetxeak lanaldi osoko profesionalentzako zehaztutako ordutegia beteko dute ikasleek.
- Aipatutako alderen batekin lotutako aldaketak onartzea (ikastetxe, denboraldi edo ordutegi aldaketak) HEFA IIko Practicum Azpibatzordeari dagokio. Beraz, ikasleek aipatutako Azpibatzordeari egin beharko dizkiote eskari guztiak, betiere, HEFAn Kasu Berezietarako zehaztutako baldintza eta epeen arabera.

## 4.2. Practicumerako plazak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartuak izan diren ikastetxe eta erakunde zerrendaren ebazpena argitaratuko du eta Fakultateari Gradu bakoitzak ikasleen espezializazio eskariei erantzuteko nahikoa plaza emango dizkio.

Ikasleari plaza esleitzeko prozedura Praktiketako Azpibatzordeak adostutako irizpideen arabera egingo da:

- Ikasleak hiru Practicum egin beharko ditu bi edo hiru ikastetxe desberdinetan, eta baldintza hori betetzea ikaslearen erantzukizuna izango da.
- PI, PII eta PIIIaren hautaketarako hurrenkera irizpide bakarra akademikoa da. Hau da, ikasleak bere espedienteko notaren eta gainditutako kredituen arabera hautatu ahalko du ikastetxea automatrikularako momentua egokitzen zaionean.
- Haur Hezkuntza Graduko ikasleek PIIIa Haur Hezkuntzako 2. zikloan egin beharko lukete; eta lehen edo bigarren praktikaldietako bat, berriz, lehen zikloan[2]. Lehen Hezkuntza Graduan ere bi ziklotan egin beharko lituzkete praktikak ikasleek. Ikasleen erantzukizuna da plazak hautatzerakoan bi zikloetan izan direla bermatzea, bietan esperientzia bereganatu dezaten.
- Ikasleek Gipuzkoan onarturiko praktiketako prestakuntza zentroen eskaintzan hautaketa egingo dute.

[2] Gradu Bikoitzaren kasuan, ikasleek 2. eta 4. urtean izango dituzte praktikak Haur Hezkuntzan. Hortaz, praktikaldi bat 0-3 zikloan eta bestea 3-6 zikloan egin beharko lituzteke.

- Practicum Dekanordetzak ikasleek plaza eskaera egiteko egutegia eta prozedura finkatu eta argitaratuko du. Plaza zehatzen eskaintza GAUReko ikaslearen profilean argitaratuko du eta ikasleek automatrikula garaian behin-betirako aukeraketa egingo dute.

## 4.3. Baliozkotzeak eta salbuesteak

Practicumen baliozkotzeak zuzenean Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateko idazkaritzan egingo dira hala dagokion kasuetan.

Salbuesteen kasuetan, hau da, egonaldiak bakarrik baliozkotzen diren kasuetan, ikasleak Practicumari dagozkion bestelako lan guztiak egitera behartuta daude, baita irakasgaiak eskatzen dituen bilera, tutoretza eta abar egitera ere.

2. Taulan baliozkotze eta salbuesteetarako kasuak ikus daitezke:

*2. Taula. Baliozkotze eta salbuesteen laburpena*

<table>
<tr><th>IRAKASGAIA</th><th>IRAKASGAI OSOA</th><th>EGONALDIA BAKARRIK</th></tr>
<tr><td rowspan="3">PRACTICUM I</td><td>HH eta LH diplomatua edo graduatua bada.</td><td rowspan="3">Practicumari dagokion denboraldian Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoko arduraldian jarduten bada.</td></tr>
<tr><td>Azkeneko hiru urteetan, gutxienez, urte erdiz lanaldi osoko arduraldian, edo urtebetez lanaldi erdiko arduraldian, Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan aritu bada.</td></tr>
<tr><td>Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.<br><br>HHren kasuan, Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria (lanbide heziketa) ikasketak egin baditu.</td></tr>
<tr><td rowspan="2">PRACTICUM II</td><td>HH eta LH ikasketetan diplomatua edo graduatua bada.</td><td rowspan="2">Praktikei dagokien denboraldian ikasleak lanaldi osoz matrikulatuta dagoen Graduan lan egiten badu.</td></tr>
<tr><td>Plan zaharretako Practicumak eginak izatea.<br><br>HHren kasuan, Haur Hezkuntzan goi mailako teknikaria (lanbide heziketa) ikasketak egin baditu.</td></tr>
</table>

| | |
|---|---|
| **PRACTICUM III** | Praktika denboraldian ikastetxe batean lanean aritzea ikasten ari den titulazioaren eta, hala dagokionean, Minorraren alorrean. |

*Iturria: norberak egina.*

## 4.4. Kasu/ egoera bereziak

Practicuma enborreko irakasgaia den aldetik, ikasleak praktikaldiko egun eta ordu guztiak bete beharko ditu derrigorrez.

Salbuespen gisa ikasle batek ezin badu Practicuma ezarrita dagoen moduan bete, bere egoera "Kasu Berezi" izan daiteke:

- Ikasketak eta lana batera egin behar duten ikasleak[3].
- Erditzeko, adopzioko edo harrerako kasuetan eta hiru urtetik beherako seme-alaben ardura duten ikasleen kasuan[4].
- Mendeko senide baten zaintzaile direla egiaztatzen duten ikasleak[5].
- Goi mailako kirolari, teknikari eta epaile gisa edo errendimendu handiko kirolari gisa egiaztatutako UPV/EHU-ko ikasleak[6].
- Mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak.
- Garapenerako Lankidetza programetan parte hartzen duten ikasleak.
- Beste egoera batzuetan dauden ikasleak:
    - Gaixotasunak, istripuak
    - Arazo administratiboak
    - Aldez aurretik ikusi ezin daitezkeenak

Kasu edo salbuespeneko egoera horietako batean egongo den ikasleak eskaera formala egin beharko du, dagokion epe eta prozedura beteaz, bere egoera "Kasu Berezi" bezala kontuan har dadin. **Ez da onartuko ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta praktiketako ikastetxearen arteko inolako akordiorik**.

Egoera horien aurrean ikasleak egin ditzakeen eskaera motak:

- Praktikaldiaren egutegia aldatzea.

---

[3] UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 10. artikuluaren arabera: https://www.ehu.eus/documents/3026289/3106907/UPVEHUko_Ikasleen_Arautegia.pdf.
[4] UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 8. artikuluaren arabera.
[5] UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 9. artikuluaren arabera.
[6] UPV/EHUko Ikasleen Arautegiaren 6. artikuluaren arabera.

- Praktikaldiaren ordutegia aldatzea.
- Praktiken zentro aldaketa.

**Prozedura** honakoa izango da:

- Ikasleak kontenplatzen diren Kasu Berezien aukerak eta eskaera motak aztertuko ditu eta bere egoerari egokitzen zaiona identifikatuko du.
- Ikasleak HEFAko web orriko Practicum atalean dagoen inprimakia beteko du eta, hala dagokionean, **egutegi proposamena** egingo du eredua jarraituz. Ikasleak eskaera berezia arrazoitzen duten agiriak atxikituko ditu.
- Ikasleak eskaera egingo du praktiketako kronograman jarritako epean, eskaera inprimakia beteta eta agiriez lagunduta.
- Practicum Azpibatzordeak eskaera aztertu eta onartzeko edo ez onartzeko erabakia hartuko du.
- Ebazpena web orriko Practicum atalean argitaratuko da.
- Practicum Azpibatzordearen ebazpena aldekoa bada, praktiketako ikastetxeari komunikatuko zaio eta, ikastetxeak egoera edo Kasu Bereziaren baldintzak onartzen baldin baditu, ikasleari eta bere unibertsitateko tutoreari eta instruktoreari komunikatuko zaie. Ikastetxeak baldintza bereziak onartzen ez baditu, beste ikastetxe bat bilatu beharko da.
- Practicum Azpibatzordearen ebazpena kontrakoa bada, ikasleak Practicum arrunta egin beharko du eta baldintza orokorrak bete beharko ditu.
- Egutegi akademikoan aldaketa eragiten duten eta beste irakasgai batzuei eragiten dieten Kasu Berezietako eskaera guztietan erantzukizun osoa ikaslearena izango da.

<u>Ezinbesteko informazioa:</u>

- Practicumaren data aldatzeak ez du baimentzen ikaslea matrikulatuta dagoen irakasgai batzuetara huts egitera.
- Egonaldiaren egutegia edo ordutegia aldatzea eskatuz gero, ikasleak gutxienez astean 15 ordu egin beharko lituzke, baina ordu gehiagoko proposamenak egin ditzake, egonaldiaren amaiera epea arintze aldera.
- Practicumari dagokion hasiera data mantenduko da. Salbuespen gisa, PIIIan mugikortasun programetara bigarren lauhilekoan joaten direnek, praktikaldia lehenengo lauhilekoan egin dezakete.
- Gutxienez bi goiz egingo direla bermatuko da.
- Ez dira astean 15 ordu baino gutxiagoko praktikak onartuko.
- Ordutegia modu ordenatu eta logikoan antolatuko da, antolaketa eta pedagogia ikuspuntutik. Goiza bi orduko bi bloketan banatuko da eta

arratsaldea bakarrean eta ikastetxeak ezarritako etenaldietan soilik irten edo sartu ahal izango da hezkuntza zentroan.

# 5. PRESTAKUNTZA IBILBIDEA: PRACTICUM BAKOITZAREN IZAERA ETA EZAUGARRIAK

## 5.1. Practicum I

### 5.1.1. Helburuak

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gradu Bikoitzeko irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte ikastetxeko jardunean eragiten duten esparru guztiak. Edukien konplexutasun maila egokia finkatu beharko dute eta, horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan, uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuz.

Horretarako, beharrezkoa izango da:

- Esperientzia esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
- Lankideekin taldean lan egitea.
- Gizarte testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
- Hezkuntza ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
- Koordinazio funtzioak betetzea.

### 5.1.2. Konpetentziak

Hezkuntza Graduak irakasle gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko konpetentziak. Jarraian ageri den 3. Taulan ikus daitezke Practicum I-ari dagozkionak:

*3. Taula. Practicum Ieko konpetentziak eta deskriptoreak*

| PRACTICUM I KONPETENTZIAK | DESKRIPTOREAK |
|---|---|
| Ikasgelaren, ikastetxearen eta bere kudeaketaren inguruko ezagutza praktikoa izatea. | HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN EZAGUTZA PRAKTIKOA |

| | |
|---|---|
| Ikasgelako eta ikastetxeko elkarrekintza eta komunikazio prozedurak behatzea, bertan giro egokia bultzatzeko. | KOMUNIKAZIORAKO eta ELKARREKINTZARAKO GIRO EGOKIA |
| Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak ezagutzea. | IKASKUNTZAREN ALDAGAIAK |

*Iturria: norberak egina.*

### 5.1.3. Gaitegia

1. GAIA. Hezkuntza zentroko errealitatea

- Erreferentziazko lege esparrua. Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculuma.
- Hezkuntza zentroak ingurune fisikoarekin, sozio-ekonomikoarekin eta kulturalarekin duen harremana.
- Hezkuntza zentroaren eta ikasgelaren egitura eta antolamendua.
- Ikastetxeko Proiektuak.
- Ikastetxeetan eskuragarri dauden dokumentazio iturriak.

2. GAIA. Ikasgelako elkarreragin prozesuak

- Ikasgelan irakaskuntza-ikaskuntzaren prozesuan esku hartzen duten aldagaiak.
- Aniztasuna: generoa, kulturen arteko harremanak...
- Informazioaren analisia eta interpretazioa.

3. GAIA. Kanpoko hezkuntza zerbitzuak

- Berritzeguneak, talde multiprofesionalak, baliabideak eta laguntza pertsonalak.

### 5.1.4. Ebaluazioa

#### *5.1.4.1. Ebaluazio Adierazleak*

*4. Taula. Practicum leko konpetentzien, ikaskuntza emaitzen, ebaluazio adierazleen eta ebidentzien arteko lotura*

| KONPETENTZIA | IKASKUNTZA EMAITZAK | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | AUKERAZKO EBIDENTZIAK |
|---|---|---|---|

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Hezkuntza komunitatearen ezagutza praktikoa** | Ikastetxearen antolaketa, hezkuntza ildo nagusiak eta ingurua ezagutzea | Ikastetxearen antolakuntza, instalazioak eta zerbitzuak behatu eta aztertzen ditu.<br><br>. | MEP<br><br>Mintegi/Foroa<br><br>ITEO |
| | | Ikastetxearen inguru soziokulturala eta linguistikoa behatzeko eta baloratzeko gaitasuna azaltzen du. | MEP<br><br>Mintegi/Foroa<br><br>ITEO |
| | | Ikastetxearen hezkuntza proiektu ezberdinak ezagutu eta islatzen ditu. | MEP<br><br>ITEO |
| | | Ikasketa prozedurak eta estrategia metodologikoak behatzeko eta ebaluatzeko teknikak erabiltzen ditu.<br><br>. | MEP<br><br>Mintegi/Foroa<br><br>ITEO |
| | | Aniztasunaren inguruko datu esanguratsuak behatzen eta kontuan hartzen ditu. | Egunerokoa, MEP, ITEO |
| **Komunikazioa eta elkarrekintza** | Informazioa aztertzea eta interpretatzea | Behatutako eta bizi izandako hezkuntza jardueren inguruan kritikoki hausnartzen du egoera zehatzetan ezaguera teorikoak erabiliz. | Mintegi/Foroa<br><br>Egunerokoa<br><br>MEP<br><br>ITEO |
| | | Erdietsitako ezagutza teorikoak ikasgelako | Mintegi/Foroa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | errealitatearekin erlazionatzen ditu. | MEP |
| | Komunikazio estrategiak modu egokian erabiltzea | Komunikazioaren alderdi formalak zaintzen ditu. | MEP<br>Egunerokoa |
| | | Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan. | MEP<br>Egunerokoa<br>ITEO<br>Foroa |
| | Elkarrekintza ezberdinetan jarrera egokia azaltzea | Jarrera egokia azaltzen du ikasle zein irakasleekin dituen elkarrekintza egoera ezberdinetan. | ITEO |
| | | Ikasgelako aniztasunaz eta honen lanketaz jabetu eta era egokian jokatu du. | Egunerokoa<br>MEP<br>ITEO |
| | | Talde lanean aritzen badaki: besteen iritziak errespetatzen ditu, proposamen berritzaileak egiten ditu. | Mintegi/Foroa |
| **Ikaskuntzaren aldagaiak** | Praticumaren prozesuan zehar jarrera egokia azaltzea | Ekintzetan parte hartzen du:ikasgela, mintegiak, bilerak...bere tutoreari lagunduz eta parte hartuz. | MEP, ITEO, MINTEGI-FOROA |
| | | Autonomoa eta sortzailea da eta egoerak eskatzen duenean erabakiak hartzeko jakinmina eta iniziatiba erakusten ditu. | ITEO |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | Praktika-aldian garatutako konpetentziak eta trebetasunak islatzen ditu, baita topatutako oztopoak ere. | Mintegi/Foroa<br>MEP |
| | Ikasgelaren errealitatearen aldagaiak eta estrategia metodologikoak behatzea eta ezagutzea | Denboraren eta espazioaren antolamendua ezagutzen eta azaltzen du eta ikasgelan duen funtzionaltasunaz jabetzen da. | MEP<br>ITEO |
| | | Ikastetxeko eta gelako baliabide didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen ditu. | MEP<br>ITEO |
| | | Ikasleek eginkizun guztietan agertzen dituzten gaitasun eta zailtasunak identifikatzen eta aztertzen ditu. | Egunerokoa<br>MEP<br>Mintegi/Foroa<br>ITEO |

*Iturria: norberak egina.*

### *5.1.4.2. Ebidentziak*

Hauek dira Unibertsitateko tutoreak erabili ditzakeen ebidentziak ebaluazio orria betetzeko:

- ITEO: Ikastetxeko tutorearen ebaluazio orria
- BIDEOA
- MEP: Memoria/ebidentzia karpeta/portfolio
- MINTEGIA – FOROA

Ebidentzia hauetako bakoitzarekin ebaluatu daitezkeen konpetentziak ebaluazio adierazleen taulan (5.1.4.1 puntuan) jasota daude.

#### 5.1.4.3. Kalifikazioa

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea:

- Unibertsitateko tutorea: azken notaren %70a – (1. Eranskinean ebaluazio orria).
- Ikastetxeko instruktorea: azken notaren %30a – (2. Eranskinean ebaluazio orria).

Praktiken kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko Dekanotzan, 10 eguneko epean.

Horrez gain, honako aldaera hauek kontuan hartzea komeni da:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Zatiren bat gainditu ez duen ikasleak Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean. Gainditutako zatiaren nota ez da gordeko.

5. Taulan ikus daitezke suspentso eta ez aurkeztu nota jaso dezaketen egoerak eta kasu bakoitzean egin beharrekoa:

*5. Taula. Ebaluazioan eman daitezkeen egoerak eta jasoko litzatekeen kalifikazioa*

| **PRACTICUM I** | | **EBALUAZIOA** | |
|---|---|---|---|
| **Praktikaldiko egonaldia** | **UPV/EHUko tutoreak bidalitako lanak** | **Ohiko deialdian jarri beharreko nota** | **Ez ohiko deialdian jarri beharreko nota** |
| Suspentso | Gainditua | Suspentso | Ez aurkeztua |
| Gainditua | Suspentso | Suspentso | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Gainditua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua |

*Iturria: norberak egina.*

Bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietara bertaratzea. Arrazoitu gabe bi orduko hiru bloketan (goiz edo arratsaldez) huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.

## 5.2. Practicum II

### 5.2.1. Helburuak

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gradu Bikoitzeko irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte ikastetxeko jardunean eragiten duten esparru guztiak. Edukien konplexutasun maila egokia finkatu beharko dute eta horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan; uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuko dira.

Horretarako beharrezkoa izango da:

- Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
- Lankideekin taldean lan egitea.
- Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
- Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
- Koordinazio-funtzioak betetzea.

### 5.2.2. Konpetentziak

Hezkuntza Graduak irakasle gisa lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko konpetentziak. Jarraian ageri den 6. Taulan ikus daitezke Practicum II-ari dagozkionak:

*6. Taula. Practicum IIko konpetentziak eta deskriptoreak*

| PRACTICUM II KONPETENTZIAK | DESKRIPTOREAK |
|---|---|
| Elkarreragin eta komunikazio prozesuak ezagutu eta aplikatzea. Ikaskuntza eta elkarbizitza errazteko beharrezkoak diren trebetasun eta gaitasun sozialak menderatzea. | KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA |

| | |
|---|---|
| Hezkuntza prozesuaren jarraipena egin eta kontrolatzea. | IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK |
| Teoria eta praktika gelaren eta ikastetxearen errealitatearekin lotzea. | TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA |
| Irakaskuntzan parte hartzea eta egiten ikastea, praktikan oinarrituta jardunez eta hausnartuz | HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA |

*Iturria: norberak egina.*

### 5.2.3. <u>Gaitegia</u>

1. GAIA. Irakasle-tutorearen eginkizuna

- Bizikidetza arauak jakinaraztea eta gela barruko harremanak: elkarrekintza prozesuen arauketa.
    - Egoera diskriminatzaileak eta horien aurrean izan beharreko jarrera (jarduteko protokoloak eta programak).
    - Gaitasun sozialen erabilera (gizarte konpetentziak) eta horiek gatazken konponketan aplikatzea.
    - Konpetentzia linguistikoa: egokitzapena eta zuzentasuna hizkuntzaren erabileran.
- Ikasleen motibazioa sustatzea.
- Ikasleei orientazioa eta tutoretza eskaintzea.
- Familiekin harremanak, lankidetza, eta familiaren eta ikastetxearen arteko eginkizunak bereiztea.

2. GAIA. Irakaslearen praktika

- Gelako programazio unitateak: metodologia irizpide orokorrak.
- Curriculuma ikastetxearen errealitatera egokitzea.
- Hainbat esparruren programazio didaktikoak aztertu eta jarduerak diseinatu eta ezartzea.
- Gelan esku hartzeko estrategiak.
- Ebaluazio irizpideak.
- Aniztasunaren tratamendua.

### 5.2.4. Ebaluazioa

#### *5.2.4.1. Ebaluazio adierazleen taula*

*7. Taula. Practicum II-ko konpetentzien, ikaskuntza emaitzen, ebaluazio adierazleen eta ebidentzien arteko lotura*

| KONPETENTZIAK (deskriptoreak) | IKASKUNTZA EMAITZAK | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | AUKERAZKO EBIDENTZIAK |
|---|---|---|---|
| **Komunikazioa eta elkarrekintza** | Taldearekin eta taldekideen arteko komunikazioa erregulatzea | Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen ditu jarduerak. | ITEO, BIDEOA |
| | | Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokatzen du. | ITEO, BIDEOA |
| | | Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu. | ITEO, BIDEOA, MINTEGIA-FOROA, MEP |
| | Komunikazio teknikak modu egokian erabiltzea, euskaraz nahiz gaztelaniaz | Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan. | ITEO, BIDEOA |
| | | Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan | ITEO, BIDEOA, MEP |
| **Ikas-irakaskuntzara-** | Curriculumaren esparruetara eta | Ikasitako ikaskuntza printzipioak eta | MEP, MINTEGIA – FOROA |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **ko teknikak eta estrategiak** | konpetentzietara xedaturik dauden jarduera didaktikoak diseinatzea | metodoak aplikatzen ditu. | |
| | | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak. | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |
| | | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana. | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |
| | Ikasleen ikaskuntza prozesuak erregulatzea | Argitasuna, objetibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak balioztatzean. | ITEO, MEP, MINTEGIA-FOROA |
| **Teoriaren eta praktikaren arteko lotura** | Teoria gelako errealitatera egokitzen jakitea eta praktikari berari buruzko hausnarketa egiteko gai izatea. | Modu kritikoan aztertzen du irakaslearen eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz. | MEP, MINTEGIA-FOROA |
| | | Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan. | MEP, MINTEGIA-FOROA |
| **Hausnarketa eta partaidetza** | Ikaskuntza egoeren garapena eta norberaren konpetentzia profesionalak balioestea | Lanaren inguruko jakin-mina eta hausnarketarako jarrera adierazten du. | MEP, MINTEGIA-<br>FOROA |
| | Ikaskuntza egoeren garapena eta norberaren | Lanaren inguruko jakin-mina eta hausnarketarako | MEP, MINTEGIA- |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | konpetentzia profesionalak balioestea | jarrera adierazten du. | FOROA |
| | Irakaslearen eginkizuna bere gain hartzea | Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du. | ITEO, BIDEOA |
| | | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean. | ITEO, MINTEGIA-FOROA |
| | | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu. | ITEO, MINTEGIA-FOROA |
| | Ikerketarako gaiak identifikatzea | Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu. | MEP, MINTEGIA-FOROA |

*Iturria: norberak egina.*

### *5.2.4.2. Ebidentziak*

Hauek dira Unibertsitateko tutoreak erabili ditzakeen ebidentziak ebaluazio orria betetzeko:

- ITEO: Ikastetxeko tutorearen ebaluazio orria
- BIDEOA
- MEP: Memoria/ebidentzia karpeta/portfolio
- MINTEGIA – FOROA

Ebidentzia hauetako bakoitzarekin ebaluatu daitezkeen konpetentziak ebaluazio adierazleen taulan (5.2.4.1 puntuan) jasota daude.

#### 5.2.4.3. *Kalifikazioa*

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea:

- Unibertsitateko tutorea: azken notaren %70a – (3. Eranskinean ebaluazio orria).
- Ikastetxeko instruktorea: azken notaren %30a – (4. Eranskinean ebaluazio orria).

Praktiken kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko dekanotzan, 10 eguneko epean. Kontuan hartu:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da atal bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Zatiren bat gainditu ez duen ikasleak Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean. Gainditutako zatiaren nota ez da gordeko.

8. Taulan ikus daitezke *suspentso* eta *ez aurkeztu* nota jaso dezaketen egoerak eta kasu bakoitzean egin beharrekoa:

*8. Taula. Ebaluazioan eman daitezkeen egoerak eta jasoko litzatekeen kalifikazioa*

| **PRACTICUM II** | | **EBALUAZIOA** | |
|---|---|---|---|
| **Praktikaldiko egonaldia** | **UPV/EHUko tutoreak bidalitako lanak** | **Ohiko deialdian jarri beharreko nota** | **Ez ohiko deialdian jarri beharreko nota** |
| Suspentso | Gainditua | Suspentso | Ez aurkeztua |
| Gainditua | Suspentso | Suspentso | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Gainditua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua |

*Iturria: norberak egina.*

Bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira:

- Ikastetxeko ordu guztietara bertaratzea. Arrazoitu gabe bi orduko lau bloketan (goiz edo arratsaldez) huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.

## 5.3. Practicum III

### 5.3.1. Helburuak

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Gradu Bikoitzeko irakasle graduatuek behar bezala ezagutu eta menderatu behar dituzte ikastetxeko jardunean eragiten duten esparru guztiak. Edukien konplexutasun maila egokia finkatu beharko dute eta horretarako, prozesu kognitiboak eta ikasleen garapen maila hartuko dira kontuan; uneoro haurren ikaskuntza autonomoa sustatzen saiatuko dira.

Horretarako beharrezkoa izango da:

- Esperientzia-esparruetan aplikatutako ezagutza pedagogikoak ezagutzea eta ulertzea.
- Lankideekin taldean lan egitea.
- Gizarte-testuinguruaren azterketa kritikoa egiteko gai izatea.
- Hezkuntza-ikerketatik sortutako ikuspegiak aztertzea eta eztabaidatzea.
- Koordinazio-funtzioak betetzea.

### 5.3.2. Konpetentziak

Hezkuntza Graduak irakasle lan egiteko prestatzen du ikaslea, Abenduaren 27ko ECI/3854/2007 eta ECI/3857/2007 ministerio-aginduek finkatzen dituzten betekizunen arabera, bertan jasotzen baitira Practicumaren bidez bereganatu beharreko konpetentziak. Jarraian ageri den 9. Taulan ikus daitezke Practicum III-ari dagozkionak:

*9. Taula. Practicum IIIko konpetentziak eta deskriptoreak*

| PRACTICUM III KONPETENTZIAK | DESKRIPTOREAK |
|---|---|
| Ingurune sozialeko eta hezkuntza komunitateko lankidetza modu ezberdinak ezagutzea | LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN |

| | |
|---|---|
| Haur (0-3 eta 3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako (6-12 urte) taldeetako elkarrekintza eta komunikazio prozesuak erregulatzea. | ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK |
| Ikastetxe batean sor daitezkeen jarduera eremu ezberdinetako hobekuntza proposamenetan parte hartzea | HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA |
| Praktika jardunetik hausnartzea, irakaskuntza-jarduneko ahulguneez eta indarguneez ohartzeko eta baita ikastetxearen eta hezkuntza sistemaren mugez ere. | PRAKTIKAREN HAUSNARKETA |

*Iturria: norberak egina.*

### 5.3.3. Gaitegia

1. GAIA. Hezkuntza praktika eta ikaste-irakaste prozesuaren balorazio kritikoa

- Ikasgela: ikastetxeko instruktorea, gelaren antolaketa eta dinamika, komunikazio prozesuen erregulatzea.
- Kasuen diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak.
- Hezkuntza lankidetza: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak.
- Kudeaketa lanak.

2. GAIA. Proiektu didaktikoen eta hezkuntza programen (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak...) diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa, minorraren alorretik

- Prozesuaren definizioa: proiektuaren edo programaren garaiak.
- Arazoaren azterketa eta definizioa.
- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia.
- Garapena eta diseinua.
- Burutze edo ezarpena.
- Emaitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak.

### 5.3.4. Ebaluazioa

#### *5.3.4.1. Ebaluazio adierazleen taula*

*10. Taula. Practicum IIIko konpetentzien, ikaskuntza emaitzen, ebaluazio adierazleen eta ebidentzien arteko lotura*

| KONPETENTZIA | IKASKUNTZA EMAITZAK | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | AUKERAZKO EBIDENTZIAK |
|---|---|---|---|
| **Lankidetza hezkuntza komunitatean** | Minorraren alorretik, ikastetxearen eta hezkuntza komunitatearen inguru soziokulturalean parte hartzea | Hezkuntza komunitatearen eta inguruko gizarte eragileen arteko harremana bultzatzeko ekintzetan parte hartzen du. | ITEO<br>Bisita |
| | | Hezkuntza komunitateko parte diren guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu | ITEO<br>Bisita |
| | Ikastetxeko taldean parte hartzea, minorraren alorretik dagozkion zeregin profesionaletan inplikatuz | Parte hartzen du irakaskuntza-kalitatearen hobekuntzan sorkuntzan eta garapenean, ikerketa pedagogikoan eta irakats-jarduera hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean. | ITEO<br>MEP<br>Bisita |
| | | Hezkuntza komunitatean lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu | Bisita<br>ITEO |
| | | Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketaren, argudioaren, negoziazioaren eta adostasunaren bidez | ITEO<br>Bisita |
| | | Praktikak burutzen ari den mailako eta zikloko eskolaz kanpoko | ITEO |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | ekintzetan parte hartzen du | Bisita |
| **Elkarrekintza eta komunikazio prozesuak** | Minorraren alorretik, ikasgelako taldearen antolaketa eta dinamika aztertu eta parte hartzea | Norbanakoaren garapen integrala lortzeko irakasleak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu | Egunerokoa<br>MEP<br>Mintegia<br>Foroa |
| | | Ikaste antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituen estrategiak erabiltzen ditu | ITEO<br>MEP |
| | | Balioetan oinarritutako hezkuntza eta garapen sozio-kognitiboa ahalbidetzen ditu | ITEO<br>MEP |
| | | Ikasleak, egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu, ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko | ITEO<br>MEP |
| | Ikasgelako komunikazioari dagokionez irakasle funtzioetan bere emozioak eta harremanak erregulatzea | Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak ezartzen eta erregulatzen ditu | ITEO<br>Bisita<br>Bideoa |
| | | Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta ikasleen arteko errespetuzko jarrera sustatzeko | ITEO<br>Bisita |
| | | Ahozko eta idatzizko adierazpena aberastasunez eta modu | ITEO<br>MEP |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | eredugarrian erabiltzen du. | Bisita<br>Bideoa |
| **Hezkuntza esku-hartzea** | Programazio unitateak edo bestelako hezkuntza esku-hartzeak planifikatu, burutu eta ebaluatzea minorraren alorretik. | Pedagogia lerroa, antolaketa eta gela barruko dinamika aztertzen eta interpretatzen ditu, minorrean eragiten duten alorrei erreparatuz | MEP<br>Mintegia<br>Foroa |
| | | Praktika garaian garatzen diren programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz | MEP<br>Mintegiak<br>Foroak |
| | | Klaseak prestatzen eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez | MEP<br>Bideoa |
| | | Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak eta baliabide didaktikoak | ITEO<br>MEP |
| | | Tutorizazio bileretan, irakasleen laguntzaile gisa, eta ikastetxeko bestelako bileretan (maila, zikloa, klaustroa) parte hartzen du | ITEO<br>MEP |
| | Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen diseinuan, grapenean eta ebaluazioan parte | Ikastetxean martxan diren plan, proiektu eta esperientzia berritzaileak ezagutzen ditu eta minorrean eragiten duten alorrak | MEP<br>Mintegia<br>Foroa |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | hartzea eta laguntzea | antzematen ditu berauetan | |
| | | Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du | MEP |
| **Praktikaren hausnarketa** | Irakaskuntza praktikaz hausnartzea minorraren ikuspegitik | Egindako behaketen eta esku-hartzearen inguruko hausnarketa egiten du, lanbidearenak diren azterketa irizpideak erabiliz | MEP<br>Mintegia<br>Foroa |
| | | Tutore, instruktore eta ikaskideekin batera norberaren parte hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du | Bisita<br>Mintegiak<br>Foroak |
| | Minorreko ezagutza teorikoak praktika profesionalarekin erlazionatzea | Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu | MEP<br>Mintegiak<br>Foroak |
| | | Ikastetxean antzemandako konpetentzia profesionalen eta horren inguruan norberak dituenen arteko antzekotasun eta desberdintasunak behatzen eta egiaztatzen ditu | MEP<br>Mintegiak<br>Foroak |

*Iturria: norberak egina.*

#### 5.3.4.2. *Ebidentziak*

Hauek dira Unibertsitateko tutoreak erabili ditzakeen ebidentziak ebaluazio orria betetzeko:

- ITEO: Ikastetxeko tutorearen ebaluazio orria
- MEP: Memoria/ebidentzia karpeta/portfolio
- EGUNEROKOA
- MINTEGIA
- FOROA
- BIDEOA
- BISITA

Ebidentzia hauetako bakoitzarekin ebaluatu daitezkeen konpetentziak ebaluazio adierazleen taulan (5.3.4.1 puntuan) jasota daude.

#### *5.3.4.3. Kalifikazio sistema*

Bi agentek ebaluatuko dute praktikak egiten ari den ikaslea:

- Unibertsitateko tutorea: azken notaren %70a – (5. Eranskinean ebaluazio orria ).
- Ikastetxeko instruktorea: azken notaren %30a – (6. Eranskinean ebaluazio orria).

Praktiken kontrako balorazioaren aurrean, ikasle bakoitzak erreklamazioa aurkeztu ahal izango du bere ikastegiko dekanotzan, 10 eguneko epean. Kontuan hartu:

- Azken nota eskuratzeko batez bestekoa egin aurretik, beharrezkoa da alde bakoitza gaindituta izatea, gutxienez, 5eko notarekin.
- Zatiren bat gainditu ez duen ikasleak Practicum osoa errepikatu beharko du hurrengo ikasturtean. Gainditutako zatiaren nota ez da gordeko.

11. Taulan ikus daitezke *suspentso* eta *ez aurkeztu* nota jaso dezaketen egoerak eta kasu bakoitzean egin beharrekoa:

*11. Taula. Ebaluazioan eman daitezkeen egoerak eta jasoko litzatekeen kalifikazioa*

| **PRACTICUM III** | | **EBALUAZIOA** | |
|---|---|---|---|
| **Praktikaldiko egonaldia** | **UPV/EHUko tutoreak bidalitako lanak** | **Ohiko deialdian jarri beharreko nota** | **Ez ohiko deialdian jarri beharreko nota** |
| Suspentso | Gainditua | Suspentso | Ez aurkeztua |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Gainditua | Suspentso | Suspentso | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Gainditua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Adierazleak hobetzeko aukera baldin badago, gainditu dezake |
| Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua | Ez aurkeztua |

*Iturria: norberak egina.*

Bertaratzeari dagokionean, baldintza hauek hertsiki eskatuko dira: Ikastetxeko ordu guztietara bertaratzea.

- Arrazoitu gabe bi orduko zazpi bloketan (goiz edo arratsaldez) huts egitea nahikoa izango da egonaldian suspentsoa jartzeko.
- Unibertsitateko tutoreak antolatutako bilera eta bestelako bertaratzeetan %80an parte hartzea ere ezinbestekoa izango da.

# ERANSKINAK

## 1. Eranskina: Practicum I fakultateko tutorearen ebaluazio orria

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

II ERAIKINA / EDIFICIO II
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM I**

**EBALUAZIO ORRIA. FAKULTATEKO TUTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:
……………………………………………………………………………………………

IKASTETXEA: ………………………………………………… Ikasturtea:……….

IKASLEA: ………………………………………Gradua:…………………………….

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko konpetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

**UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)**

| **KONPETENTZIA** | **EBALUAZIO ADIERAZLEAK** | |
|---|---|---|
| **ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK** | Maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu. | |
| | Gelako dinamikan komunikazio prozesuak eta ikasleekiko harremana ahalbidetzeko teknika egokiak ezagutzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |
| **HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA** | Programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz. | |
| | Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetako bere parte-hartzearen azterketa egokia egiten du. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |
| | Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du. | |

| | | |
|---|---|---|
| **PRAKTIKAREN HAUSNARKETA** | Tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte-hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du. | |
| | Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)**

| | | |
|---|---|---|
| **KONPETENTZIAK** | **LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN (1-10):** | |
| | **ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK (1-10):** | |
| | **HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA (1-10):** | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

..............................................................................................................................
..............................................................................................................................
..............................................................................................................................
..............................................................................................................................
..............................................................................................................................
..............................................................................................................................
...............................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

**SINADURA:**

………………………………(e)n, 202……(e)ko …………………ren ……… (e)(a)n

## 2. Eranskina: Practicum I ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

**II ERAIKINA / EDIFICIO II**

Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM I**

**EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK: ……………………………………….………………………………………………

IKASTETXEA:…………………………………………………………………………...

IKASLEA:…………..…………………………………………………………………….

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin lotuta daude. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko tutorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **HEZKUNTZA KOMUNITATEA-REN EZAGUTZA PRAKTIKOA** | Ikastetxearen antolakuntza, instalazioak eta zerbitzuak behatu eta aztertzen ditu. | |
| | Ikastetxearen inguru soziokulturala, linguistikoa… behatzeko eta baloratzeko gaitasunak erakusten ditu. | |
| | Ikastetxearen hezkuntza proiektu ezberdinak ezagutzen ditu. | |
| | Aniztasunaren inguruko datu esanguratsuak behatzen eta kontuan hartzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|
| | Hizkuntza, idatziz zein ahoz, zuzentasunez eta egoki erabiltzen du egoera guztietan. |

| | | |
|---|---|---|
| **KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA** | Komunikazio estrategia egokiak erabiltzen ditu ikasle zein irakasleekin dituen elkarrekintza egoera ezberdinetan. | |
| | Ikasgelako aniztasunaz eta honen lanketaz jabetu da eta era egokian jokatu du. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **IKASKUNTZAREN ALDAGAIAK** | Ekintzetan parte hartzen du: ikasgela, mintegiak, bilerak… bere tutoreari lagunduz eta ardurak hartuz. | |
| | Autonomoa eta sortzailea da eta egoerak eskatzen duenean erabakiak hartzeko jakin-mina eta iniziatiba erakusten ditu. | |
| | Denboraren eta espazioaren antolamendua ezagutzen du eta ikasgelan duen funtzionaltasunaz jabetu da. | |
| | Estrategia metodologikoak behatu eta ezagutzen ditu. | |
| | Ikastetxeko eta gelako baliabide material eta didaktikoak ezagutzen eta erabiltzen badaki. | |
| | Ikasleek eginkizun guztietan agertu dituzten gaitasun eta zailtasunak identifikatzen eta aztertzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

.....................................................................................................................................
.....................................................................................................................................
.....................................................................................................................................
.....................................................................................................................................
.....................................................................................................................................
.....................................................................................................................................
.....................................................................................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

SINADURA:

………………………………(e)n, 202……(e)ko …………………ren ……… (e)(a)n

## 3. Eranskina: Practicum II fakultateko tutorearen ebaluazio orria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

II ERAIKINA / EDIFICIO II
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM II**

**EBALUAZIO ORRIA. FAKULTATEKO TUTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:
………………………………………..……………………………………………

IKASTETXEA: ………………………………………………… Ikasturtea:….……..

IKASLEA: ……….………………………………Gradua:………………….…………

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko konpetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

**UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)**

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA** | Ahozko eta idatzizko adierazpena zuzen eta modu eraginkorrean erabiltzen du bi hizkuntza ofizialetan. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|
| **IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK** | Ikasitako ikaskuntza printzipioak eta metodoak aplikatzen ditu. |
| | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak. |
| | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana. |
| | Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak baloratzean. |

| | | |
|---|---|---|
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

| **KONPETENTZIA** | **EBALUAZIO ADIERAZLEAK** | |
|---|---|---|
| **TEORIAREN ETA PRAKTIKAREN ARTEKO LOTURA** | Modu kritikoan aztertzen du maisu-maistraren eginkizuna, ikastetxeko irakasleen lana behatuz. | |
| | Ezagutza teorikoak txertatzen ditu bere irakasle-praktikan. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

| **KONPETENTZIA** | **EBALUAZIO ADIERAZLEAK** | |
|---|---|---|
| **HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA** | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean. | |
| | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezko diren metodologiak, teknikak eta a estrategiak erabiltzen ditu. | |
| | Etorkizunean ikerketaren xede izan daitezkeen helburuak eta galderak planteatzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)**

| | | |
|---|---|---|
| **KONPETENTZIAK** | KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA (1-10): | |
| | IKAS-IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK (1-10): | |
| | HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA (1-10): | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

.........................................................................................................................................
.........................................................................................................................................
.........................................................................................................................................
.........................................................................................................................................
.........................................................................................................................................
...............................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

| |
|---|
| |

SINADURA:

………………………………(e)n, 202……(e)ko …………………ren ……… (e)(a)n

## 4. Eranskina: Practicum II ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

**II ERAIKINA / EDIFICIO II**
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM II**

**EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK: ……………………………………………………………………………………………

IKASTETXEA: …………………………………………………………………………….

IKASLEA: …..…………………………………………………………………………….

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio irizpideak ikasleek bete behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko instruktorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **KOMUNIKAZIOA ETA ELKARREKINTZA** | Ikasleen ezaugarrietara eta aniztasunera egokitzen ditu jarduerak. | |
| | Klasean ordena mantentzeko gai da. Malgutasunez eta zuhurtziaz jokatzen du . | |
| | Arretarako eta motibaziorako estrategiak erabiltzen ditu. Teknika metodologiko sortzaileak eta ludikoak aplikatzen ditu. | |
| | Ikasleekin hizkuntza egokia erabiltzen du gelan nahiz ikastetxeko beste testuinguru guztietan. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK |
|---|---|
| | Programa batek izan behar dituen funtsezko elementuak kontuan izanik diseinatzen ditu jarduerak. |

| | | |
|---|---|---|
| **IKAS--IRAKASKUNTZARAKO TEKNIKAK ETA ESTRATEGIAK** | Eredu didaktiko berritzaileetan oinarrituta planifikatzen du bere lana. | |
| | Argitasuna, objektibotasuna eta irizpide-berdintasuna agertzen ditu eskolako lanak balioestean. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **HAUSNARKETA ETA PARTAIDETZA** | Ikastetxeko eguneroko errealitatean modu aktiboan parte hartzen du. | |
| | Irtenbide berritzaileak bilatzen ditu gelan sortutako egoeren aurrean. | |
| | Ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan beharrezkoak diren metodologiak, teknikak eta estrategiak erabiltzen ditu. | |
| | Lanaren inguruko galderak egiten ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10)** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
......................................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

SINADURA:

………………………………(e)n, 202……(e)ko …………………ren ……… (e)(a)n

## 5. Eranskina: Practicum III fakultateko tutorearen ebaluazio orria

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

II ERAIKINA / EDIFICIO II
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM III**

**EBALUAZIO ORRIA. FAKULTATEKO TUTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK: …………………………………….…………………………………………………

IKASTETXEA: ………………………………………………… Ikasturtea:….……..

IKASLEA: ……….……………………………Gradua:……………….………….

Hemen azaltzen diren ebaluazio irizpideak ikasleak lortu beharreko konpetentziei loturik daude. Orientabide edo lagungarri moduan hartu behar dira, ebaluazioa errazteko tresna gisa.

**UNIBERTSITATEKO TUTOREAREN EBALUAZIOA (% 70)**

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK** | Maisu-maistrak ikasgelan eraikitzen dituen erlazioak aztertzen ditu. | |
| | Gelako dinamikan komunikazio prozesuak eta ikasleekiko harremana ahalbidetzeko teknika egokiak ezagutzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |
| **HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA** | Programazioetako ekintza aukeratuak antolatzen, kudeatzen eta ebaluatzen ditu, helburu pedagogikoekin erkatuz. | |
| | Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuetako bere parte-hartzearen azterketa egokia egiten du. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |
| | Egindako behaketen inguruko hausnarketa egiten du. | |

| | | |
|---|---|---|
| **PRAKTIKAREN HAUSNARKETA** | Tutoreekin eta ikaskideekin batera norberaren parte-hartzeaz eta hobetze aukerez hausnartzen du. | |
| | Ezagutza teorikoak eskolaren esparruan behatutako egoerekin eta, bereziki, gela barrukoekin erlazionatzen ditu. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**IKASTETXEKO INSTRUKTOREAREN EBALUAZIOA (% 30)**

| | | |
|---|---|---|
| **KONPETENTZIAK** | LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN (1-10): | |
| | ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK (1-10): | |
| | HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA (1-10): | |
| | **BALORAZIO OROKORRA (1-10):** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
..........................................................................................................................
................................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

SINADURA:

………………………………(e)n, 202……(e)ko …………………ren ……… (e)(a)n

## 6. Eranskina: Practicum III ikastetxeko instruktorearen ebaluazio orria

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA
FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

II ERAIKINA / EDIFICIO II
Oñati Plaza, 3
20018 Donostia / San Sebastián
GIPUZKOAKO CAMPUSA

**PRACTICUM III**

**EBALUAZIO ORRIA. IKASTETXEKO INSTRUKTOREA**

IKASTETXEKO TUTOREAREN IZEN-ABIZENAK:
………………………………………..…………………………………………….

IKASTETXEA: …………………………………………………………………....

IKASLEA: ……………………………………………………………………….….

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

Ebaluazio Irizpideak ikasleek lortu behar dituzten konpetentziekin daude lotuta. Lortu nahi dugun xedea, hain zuzen ere, ikastetxeko instruktorearen ebaluazioa errazteko balio izatea da eta, beraz, orientabide gisa hartu behar dira. Eskuineko zutabean irizpideen nota edo balioespena islatu daiteke.

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **LANKIDETZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAN** | Hezkuntza komunitateko guztiekiko errespetua, malgutasuna, ardura eta etika profesionala erakusten ditu. | |
| | Irakaskuntza kalitatea hobetzeko erabiltzen diren metodo eta tekniken ezarpenean parte hartzen du. | |
| | Lankidetzarako jarrerak, ezagutzak, estrategiak eta konpetentziak adierazten ditu. | |
| | Arazoak konpontzen eta erabakiak hartzen ditu, lankideekin dituen elkarrizketen eta adostasunaren bidez. | |
| | Eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzen du. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA: (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **ELKARREKINTZA ETA KOMUNIKAZIO PROZESUAK** | Antolaketa eta elkarbizitza bultzatzen dituzten estrategiak erabiltzen ditu. | |
| | Egoeraren arabera, modu egokian antolatzen ditu jarduerak ikasketa kooperatiboa eta banakako lana sustatzeko. | |
| | Gelako dinamikak eta komunikazio prozesuak menperatzen ditu. | |
| | Teknika egokiak erabiltzen ditu ikasleekin duen harremana ahalbidetzeko eta giro egokia sustatzeko. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA: (1-10)** | |

| KONPETENTZIA | EBALUAZIO ADIERAZLEAK | |
|---|---|---|
| **HEZKUNTZA ESKU-HARTZEAK** | Gelako aniztasuna kontuan hartuz aukeratzen eta prestatzen ditu materialak. | |
| | Tutorizazio bileretan eta ikastetxeko bestelakoetan parte hartzen du maisu-maistren laguntzaile gisa. | |
| | Klaseak prestatu eta ematen ditu, helburu pedagogikoekin, edukiekin eta baliabide egokiekin bat eginez. | |
| | Ikasketa kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza proiektuetan parte hartzen du. | |
| | **BALORAZIO OROKORRA: (1-10)** | |

**OHARRAK eta ZEHAZTAPENAK: (behar adina luzatu dokumentua)**

.............................................................................................................................
.............................................................................................................................
.............................................................................................................................
.............................................................................................................................
.............................................................................................................................
.............................................

**KALIFIKAZIOA (1-10):**

SINADURA:

.....................................(e)n, 202......(e)ko ......................ren .......... (e)(a)n

## 7. Eranskina: FAQ ikasleentzat

### Practicuma hasi baino lehenago

- **Nire kabuz adostu dezaket egonaldia ikastetxe batekin?**

  Ez. Ikasleak ezin du, ikastetxeren batekin adostuta ere, zerrendatik kanpo dagoen inongo ikastetxetan praktikaldia burutu. Eusko Jaurlaritzarena da kudeaketa.

- **Zein ziklotan egin behar dut praktikaldia?**

  Praktikaldiak ziklo guztietan egitea gomendatzen zaie ikasleei. Haur Hezkuntza Gradukoek PIIIa 3-6 zikloan egingo dute derrigor, beraz, PI edo PII aurreko zikloetan egitea gomendatzen da.

- **Praktikaldian zehar ikastetxe batean lanean ari banaiz, egonaldia salbuesten al zait?**

  Ikaslea ikasten ari den titulazioko adin tartean ari bada lanean ikastetxe ofizial batean (eta PIIIan ikasten ari den minorraren alorrean) egonaldia salbuesteko aukera izan dezake. Practicumari dagozkion gainerako eginkizunak bete beharko ditu, hala ere, gainontzeko ikasleek bezalaxe. Edozein kasutan, Kasu Bereziaren eskaera burutu beharko du.

- **Egonaldia hasi aurretik, ikastetxearekin harremanetan jarri behar dut?**

  Bai. Praktikaldiko lehenengo eguna baino lehen ikasleak ikastetxera deitu behar du eta lehen eguneko hitzordua adostu: zein ordutan bertaratu behar duen, zein gelatara joan eta zein irakasleren ardurapean egongo den jakin behar du.

- **Zer gertatzen da ikastetxeko ordutegia ezin izango dudala bete aurreikusten badut? Ikastetxearekin adostu dezaket ordutegi egokitzapena?**

  Ez. Ikasleak ezin du ikastetxearekin ordutegi aldaketarik adostu. Ikasleak praktikaldiko ikastetxean ordutegia bere osotasunean bete behar du, salbuespenik gabe. Ikasleak gidan datorren arrazoi batengatik ikastetxeko ordutegi osoa beti ezin badu, Kasu Berezi gisa bideratu beharko da eta Practicum batzordeak ebatziko du.

- **Nola jakingo du ikastetxeak Kasu Berezi bat eskatu dudala?**

Ikasle bati Kasu Bereziaren eskaeran ordutegi/egutegi aldaketa onartzen bazaio, Practicum koordinatzaileak tutoreari jakinaraziko dio ikaslearen egutegi/ordutegi berria; ondoren, tutoreak ikastetxeko instruktoreari emango dio horren berri. Ikasleak ordutegi egokitua helarazi beharko dio instruktoreari eta tutoreari.

## Praktikaldian zehar

- **Nire instruktoreak beste ikasle bat izan dezake bere ardurapean?**

  Ez, ikastetxeko instruktore batek ezin du bi ikasleren tutoretza hartu. Plaza bakoitzak bere instruktorea du.

- **Eskola-orduetan egoteaz gain, zer beste zeregin egin behar ditut ikastetxean?**

  Ikasleek, eskola orduez gain, irakasleen bestelako zereginetan parte hartu behar dute: formakuntza, bilerak, mintegiak, etab. Zeregin hauek klase-orduak bezain garrantzitsuak dira ikaslearen formakuntzan.

- **Zer gertatzen da, gerora sortutako egoeren ondorioz, ikastetxeko ordutegia bete ezin badut?**

  Ikasleak praktikaldiko ikastetxean ordutegia osorik bete behar du. Ezin du ikasleak ikastetxearekin aldaketarik adostu. Ikasleak gidan datorren arrazoi batengatik ikastetxeko ordutegi osoa beti ezin badu, Kasu Berezi gisa bideratu beharko da.

- **Zer gertatzen da gaixotzen banaiz?**

  Unibertsitateko tutoreari eta ikastetxeko instruktoreari abisatuko dio gaixo dagoela. Egunak berreskuratzeko, honako irizpideak jarraituko dira:

  - PI-ean: 2 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.
  - PII-ean: 3 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.
  - PIII-ean: 5 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.

  Ikasleak egunak errekuperatu behar baditu, tutoreak instruktoreari abisatuko dio. Informazio hau practicum bulegora ere bideratuko da, bertatik ikastetxeari ofizialki jakinarazteko.

- **Zer gertatzen da greba deialdiaren kasuan?**

  Ikasleei bideratutako etenaldi akademikoa deitzen denean, ikasleek eskubidea dute egun horretan praktiketako ikastetxera ez joateko. Etenaldia egitekotan, ikasleak hala jakinarazi beharko die instruktoreari eta tutoreari. Hezkuntza zentroko langileen greba deialdia denean, ikasleak hezkuntza zentrora joan beharko du.

- **Nahitaezkoa al da ikasleak unibertsitateko practicum bileretara eta mintegietara joatea? Huts-egiteak zein ondorio eduki ditzake?**

  Bai. Ikaslea bilerara gerturatzea derrigorrezkoa da.

  Ikasleekin antolatzen diren practicum-mintegien asistentzia tutoreak bermatu behar du, eta ikasleak lan kontratua edo bestelako ziurtagiria aurkeztu beharko dio irakasleari bertaratu ezin duenean.

  Mintegi batera justifikatu gabe huts egitea aski motibo izan daiteke Practicuma suspenditzeko.

- **Ikastetxean irteeraren bat egiten badute, joan behar dut?**

  Bai. Kasu guztietan, ikasle-aseguruak irteera horiek kubritzen ditu. Gaua pasatzeko irteeraren bat egongo balitz eta ikasleak huts egiteko pisuzko arrazoiren bat izango balu (arratsaldez lan egiten duela, adibidez) salbuetsita egon liteke irteeratik. Hala ere, ikasleak ohiko ordutegian bertaratu beharko luke ikastetxean, dena delako zereginak egiten jarduteko.

- **Ikastetxe ezberdinetan egon naiteke praktikaldian zehar?**

  Hezkuntza zentroko instruktorea espezialista ibiltaria bada (eskola txikietan lan egiten duelako) ikaslea berarekin joan daiteke praktikaldian hainbat ikastetxetara, baldin eta instruktoreak sare publikoan lan egiten badu eta bere lan kontratuak ibiltaria izatea eskatzen badu. Ikasle-aseguruak kubritzen ditu ikastetxe batetik besterako desplazamenduak.

- **Ikaslea egon daiteke uneren batean esleitu ez zaion beste irakasleren baten gelan?**

  Ikasleak bere instruktorearekin egon behar du; baina ikaslearen formazio beharrak hala justifikatuko balu, beste irakasleren baten gelara joateko aukera izango luke ikasleak. Edonola ere, unibertsitateko tutorearekin adostu beharko da.

**Practicumaren ebaluazioa**

- **Nola banatzen dira kalifikazioaren portzentajeak tutore eta instruktorearen artean?**

  Instruktoreek ebaluazioan ehuneko baxuagoa (%30) dute unibertsitateko tutoreek (%70) baino. Tutoreak, zereginak eta mintegitako partaidetza ebaluatzeaz gain, ikaslearen ikastetxeko jarduera ere baloratuko du. Ikastetxera egindako bisitak edo tutore-instruktore harremana baliatu ditzake horretarako.

- **Nire tutoreak jar diezadake suspentsoa, nahiz eta ikastetxeko irakasleak gainditu?**

  Bai, instruktoreak eta tutoreak gainditu behar zaituzte. Ebaluazio sistema Practicum gidako ebaluazio atalean topatuko duzu.

## 8. Eranskina: FAQ UPV/EHUko tutore eta koordinatzaileentzat

**Practicuma hasi baino lehen**

- **Non daude nire practicum taldeko ikasleen datuak eta informazioa?**

  Tutoreak ikasleen kontaktu datuak eta bestelako informazioa GAUR aplikazioan ditu eskuragai, praktikaldia hasi baino bi aste lehenagotik (gutxi gorabehera): Webgunean logeatu, eta ezkerreko ilaran "nahitaezko praktikak" "ikasturtea aukeratu" "adjudikazioak" "bilatu".

- **Nola egingo dut lehen kontaktua ikasleekin?**

  Praktikaldiaren aurretik unibertsitateko tutoreak ikasleekin jarriko dira harremanetan, praktiketara joan aurretik lehenengo bilera egiteko.

- **Lehenengo bilera noiz egin behar da? Klase orduan jar daiteke?**

  Praktikaldiaren aurreko astean egitea komeni da. Bilera ezin da klase orduan jarri. Beraz, bilera horren eguna eta ordua zehazteko beharrezkoa da ikasleen ordutegiak begiratzea.

- **Lehenengo bilera tutoretza orduetan jar dezaket?**

  Ez.

- **Nahitaezkoa al da ikasleak bileretara eta mintegietara joatea?**

Bai. Ikasleei bilerara gerturatzea betebeharrezko baldintza dela gogoraraziko zaie. Antolatzen diren practicum-mintegien asistentzia bermatu behar du tutoreak eta, kasleak bertaratu ezin duenean, lan kontratua edo dagokion ziurtagiria eskatu beharko dio.

- **Zer esango diet ikasleei lehenengo bileran? Gogorarazpen zerrenda bat eman diezadakezu?**

  Praktikaldiko lehenengo eguna baino lehen ikasleak ikastetxera deitu eta hitzordua adostea komeni da.

  Ikastetxeko instruktorearen izen-abizenak eta helbide elektronikoa bidaltzeko eskatuko zaie.

  Ikasleek, eskola orduez gain, irakasleen bestelako zereginetan parte hartu behar dutela gogoraraziko zaie (formakuntza, bilerak, mintegiak, etab.) eta beste hainbat ekintzatan ere parte hartu dezaketela (irteerak, bilerak, etab.).

  Praktiketako tutorea ez den unibertsitateko beste edozein irakaslek ezin du irakasgaiko edota GRALeko bilerarik/tutoretzarik jarri praktikaldiko ordutegian. Hala bada, tutoreareari jakinaraztea gomendatuko zaio.

- **Nire ikasle batek kasu bereziaren eskaera egin badu, zer egin behar dut?**

  Ikasle bati Kasu Bereziko eskaeran ordutegi/egutegi aldaketa onartu bazaio, practicum koordinatzaileak tutoreari jakinaraziko dio ikaslearen egutegi/ordutegi berria; ondoren, tutoreek instruktoreari emango diozue horren berri.

<u>**Praktikaldian zehar**</u>

- **Zer egin behar dut praktikaldia hasi bezain laster?**

  Tutoreak mezu bat bidaliko dio instruktoreari, bere burua aurkeztuko du bertan eta praktikaldiaren inguruko argibideak emango ditu. Mezuaren eredu bat badago (nahi izanez gero, eskatu koordinatzaileari).

- **Bisitak egin behar ditut?**

  PIIan eta PIIIan gutxienez bisita bat egin behar du unibertsitateko tutoreak. Bisitak instruktorea aurrez aurre ezagutzeko eta argibideak zuzenean azaltzeko aukera ematen du, baita ikasleak egunero bizi duen ingurunea

bertatik bertara ezagutzekoa ere. Horrez gain, ikasleekin bilera bat ikastetxean bertan egiteko aprobetxatu daiteke bisita.

Bisitarik egin ezin bada, zergatia azaldu beharko zaio Practicum arduradunari eta instruktorearekin harremana telefonoz egingo da.

Bisiten ordutegiak HEFA-IIko Dekanotzako Idazkariari jakinarazi behar zaizkio. Horretarako, formularioa bidali behar da hefa.dekano-idazkaria@ehu.eus helbidera.

- **Gure ikasle baten instruktoreak praktiketako beste ikasle bat ere izan al dezake?**

  Ez, ikastetxeko instruktore batek ezin du bi ikasleren tutoretza hartu. Plaza bakoitzak bere instruktorea du.

- **Zer gertatzen da ikasle bat gaixotzen ba da?**

  Ikaslea praktikaldian zehar gaixotzen bada, kasu bakoitzean horrela jokatu beharko du:

  - PIean: 2 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.
  - PIIean: 3 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.
  - PIIIean: 5 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.

  Ikasleak egunak errekuperatu behar baditu, tutoreak instruktoreari abisatuko dio. Informazio hau hefa.practicum2@ehu.eus helbidera ere bidaliko da, bertatik ikastetxeari ofizialki jakinarazteko.

- **Praktikaldian zehar ikastetxeak irteeraren bat egiten badu, ikasleak joan behar du?**

  Bai. Kasu guztietan, ikasle-aseguruak irteera horiek kubritzen ditu. Gaua pasatzeko irteeraren bat egongo balitz eta ikasleak huts egiteko pisuzko arrazoiren bat izango balu (arratsaldez lan egiten duela, adibidez), ikasleak ohiko ordutegian bertaratu beharko luke ikastetxera, dena delako zereginak egiten jarduteko.

- **Zer gertatzen da greba deialdiaren kasuan?**

Ikasleei bideratutako etenaldi akademikoa deitzen denean, ikasleek eskubidea dute egun horretan praktiketako ikastetxera ez joateko. Etenaldia egitekotan, ikasleak hala jakinarazi beharko die instruktoreari eta tutoreari. Hezkuntza zentroko langileen greba deialdia denean, ikasleak hezkuntza zentrora joan beharko du.

- **Ikaslea egon daiteke praktikaldian zehar ikastetxe bat baino gehiagotan?**

  Hezkuntza zentroko instruktorea espezialista ibiltaria bada (eskola txikietan lan egiten duelako) ikaslea berarekin joan daiteke praktikaldian hainbat ikastetxetara, baldin eta instruktoreak sare publikoan lan egiten badu eta bere lan kontratuak ibiltaria izatea eskatzen badu. Ikasle-aseguruak kubritzen ditu ikastetxe batetik besterako desplazamenduak.

- **Praktikaldian zehar antolatzen ditudan mintegiak tutoretza orduetan jar ditzaket?**

  Ez.

- **Bisitak tutoretza orduetan egin ditzaket?**

  Ez.

- **Praktikaldian zehar ikasleek, nik bidalitako lanak egiteaz gain, beste irakasleek bidalitako lanak egin behar dituzte?**

  Tutore ez diren bestelako irakasleek Practicumean zehar egiteko lanik bidaltzen badiete ikasleei, Practicum koordinatzailearen oniritzia beharko dute.

- **Ikaslea egon daiteke uneren batean esleitu ez zaion beste irakasleren baten gelan?**

  Ikasleak bere instruktorearekin egon behar du; baina ikaslearen formazio beharrak hala justifikatuko balu, beste irakasleren baten gelara joateko aukera izango luke ikasleak. Edonola ere, unibertsitateko tutorearekin adostuko da.

- **Zer egin behar dut ikastetxeko instruktoreak ziurtagiria eskatzen badit?**

  Ziurtagiri hori Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duela jakinarazi behar zaio.

Practicumaren ebaluazioa

- **Instruktoreak egindako ebaluazioa konfidentziala al da?**

  Ez, ikasleei instruktoreen ebaluazio orria erakutsi dakieke; baina ez entregatu. Instruktoreari jakinarazi behar zaio ikasleari ebaluazio orria erakuts diezaiokeela ikasleek hala eskatuz gero. Gogorarazi behar zaie komeni dela praktikaldian zehar irakasleak ebaluazioaren berri izatea, baita ikasleari *feedback*a ematea ere, hobetzeko aukera izan dezaten.

- **Kalifikazioan, non topatu dezaket noiz jarri behar dudan "ez aurkeztua" eta noiz "suspentsoa"?**

  Practicum Gidaren ebaluazioaren atalean zehazten da.

- **Nire kalifikazioan nirekin egindako lanak ebaluatu besterik ez dut egin behar?**

  Ez, tutoreak ebaluatu egin behar du ikaslearen ikastetxeko jarduera ere bai. Ikastetxera egindako bisita(k) baliatu daite(z)ke horretarako. Instruktoreek ebaluazioan ehuneko baxuagoa (%30) dute unibertsitateko tutoreek (%70) baino.

- **Ohorezko matrikulak GAURen jar daitezke zuzenean?**

  Ez. Tutore batek bere ikasle bati Ohorezko Matrikula jarri nahi badio, koordinatzaileari jakinarazi beharko dio bere proposamena arrazoituz. Practicum bakoitzetik 20 ikasleko Ohorezko Matrikula bana eman daiteke gehienez, proposamen kopurua hori baino txikiagoa bada automatikoki onartuko da eskaera. Proposamen kopurua altuagoa bada, Practicum Batzordeak erabakiko du nori eman, proposamenaren arrazoiketaren, espedientearen eta ezarritako beste irizpideen arabera.

- **Noiz eta nola argitaratzen dira practicumeko kalifikazioak?**

  Practicumeko ebaluazioak maiatza-ekainean egiten dira, GAURen bidez. Hala ere, tutoreek lehenago jakinarazi ohi dizkiete notak ikasleei (egela bidez, adibidez, kalifikazio prozesua bukatu bezain laster).

# 9. Eranskina: FAQ ikastetxeko instruktorearentzat

- **Bi praktiketako ikasle izan al ditzaket?**

Ez, hezkuntza zentroko instruktore batek ezin du bi ikasleren tutoretza hartu. Plaza bakoitzak bere instruktorea du.

- **Praktikaldian zehar irteeraren bat egiten badugu ikastetxean, ikaslea joan daiteke?**

  Bai, zuekin joan beharko luke.Gaua pasatzeko irteeraren bat egongo balitz eta ikasleak huts egiteko pisuzko arrazoiren bat izango balu (arratsaldez lan egiten duela, adibidez), ikasleak ohiko ordutegian bertaratu beharko luke ikastetxean, dena delako zereginak egiten jarduteko.

- **Zer gertatzen da ikasleak ikastetxeko ordutegia ezin izango duela bete aurreikusten badu? Ikastetxearekin adostu dezake ordutegi egokitzapena?**

  Ez. Ikasleak ezin du ikastetxearekin ordutegi aldaketarik adostu. Ikasleak praktikaldiko ikastetxean ordutegia bere osotasunean bete behar du, salbuespenik gabe. Ikasleak gidan datorren arrazoi batengatik ikastetxeko ordutegi osoa beti ezin badu, Kasu Berezi gisa bideratu beharko da eta Practicum batzordeak ebatziko du.

- **Zer gertatzen da, gerora sortutako egoeren ondorioz, ikasleak ikastetxeko ordutegia bete ezin badu?**

  Ikasleak praktikaldiko ikastetxean ordutegia osorik bete behar du. Ezin du ikasleak ikastetxearekin aldaketarik adostu. Ikasleak gidan datorren arrazoi batengatik ikastetxeko ordutegi osoa beti ezin badu, Kasu Berezi gisa bideratu beharko da.

- **Zer gertatzen da greba deialdiaren kasuan?**

  Ikasleei bideratutako etenaldi akademikoa deitzen denean, ikasleek eskubidea dute egun horretan praktiketako ikastetxera ez joateko. Etenaldia egitekotan, ikasleak hala jakinarazi beharko die instruktoreari eta tutoreari. Hezkuntza zentroko langileen greba deialdia denean, ikasleak hezkuntza zentrora joan beharko du.

- **Zer gertatzen da ikaslea gaixotzen bada?**

  Ikaslea praktikaldian zehar gaixotzen bada, irizpide hauen arabera berreskuratu beharko ditu galdutako egunak:

  - Plean: 2 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.

- PIIean: 3 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.
- PIIIean: 5 egunetan gaixotasunagatik joan ez bada, ez da beharrezkoa errekuperatzea, hortik aurrerakoak bai.

- **Nahitaezkoa al da ikasleak unibertsitateko practicum bileretara eta mintegietara joatea? Huts-egiteak zein ondorio eduki ditzake?**

  Bai. Ikaslea bilerara gerturatzea derrigorrezkoa da.

  Ikasleekin antolatzen diren practicum-mintegien asistentzia tutoreak bermatu behar du, eta ikasleak lan kontratua edo bestelako ziurtagiria aurkeztu beharko dio irakasleari bertaratu ezin duenean.

  Mintegi batera justifikatu gabe huts egitea aski motibo izan daiteke Practicuma suspenditzeko.

- **Ikaslea egon daiteke praktikaldian zehar ikastetxe bat baino gehiagotan?**

  Hezkuntza zentroko instruktorea espezialista ibiltaria bada (eskola txikietan lan egiten duelako) ikaslea berarekin joan daiteke praktikaldian hainbat ikastetxetara, baldin eta instruktoreak sare publikoan lan egiten badu eta bere lan kontratuak ibiltaria izatea eskatzen badu. Ikasle-aseguruak kubritzen ditu ikastetxe batetik besterako desplazamenduak.

- **Nire ebaluazioa konfidentziala al da ikaslearentzat?**

  Ez, ikasleei instruktoreen ebaluazio orria erakutsi dakieke hala eskatzen badute, baina ez zaie entregatuko. Praktikaldian zehar instruktoreak gerora beteko duen ebaluazio txantiloia ezagutu behar du eta ikasleari *feedback*a ematen joan, hobetzeko aukera izan dezan.

- **Ikaslea egon daiteke uneren batean esleitu ez zaion beste irakasleren baten gelan?**

  Ikasleak bere instruktorearekin egon behar du uneoro; baina ikaslearen formazio beharrak hala justifikatuko balu, beste irakasleren baten gelara joateko aukera izango luke ikasleak. Edonola ere, unibertsitateko tutorearekin adostuko da.

- **Zer egin behar dut Practicumeko ikasle bat gidatu izanaren ziurtagiria lortzeko?**

Eusko Jaurlaritzak kudeatzen du. Hezkuntza sailera bideratu behar dira eskaerak aplikatiboaren bitartez.